



**VITORIA
GASTEIZ**
green capital



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Gaurko kazetaritzari buruzko 11. jardunaldiak

2025eko abuztuaren
25etik 29ra arte

**KAZETARITZA,
BERTATIK
BERTARA**

Antolatzailea:
Gasteizko Udalaren Kultura Zerbitzua
www.vitoria-gasteiz.org

Laguntzailea:



Kudeatzailea:



Azala: © Sergi Cámara



Gaurko kazetaritzari buruzko 11. jardunaldiak

2025eko abuztuaren
25etik 29ra arte



Europa
biltzar-jauregia

EUROPA BILTZAR JAUREGIKO JARDUERAK (Gasteiz hiribidea, 85)

Sarrera librea izango da, lekuak bete arte.
Ez da eserlekuak erreserbatzerik onartuko.
Sarbidea: eskuineko alboko atetik (iparraldeko sarrera).
Zeinu-hizkuntzako interpretazio-zerbitzua izango da ekitaldi guztietan.

ERAKUSKETAREN BISITA GIDATUAK (Gasteiz hiribidea, 85, Europa biltzar-jauregiaren ondoan)

Jarduera irekia. Ez da aurretiaz izenik eman behar.
Lekua: erakusketaren ondoan, adierazitako orduan.

FLORIDA ZINEMA ARETOKO EMANALDIAK (San Prudentzio kalea, 22-24)

Sarrerak leihatilan eros daitezke, edo webgunean erreserbatu:
www.cinesflorida.com. Prezioa: 3 €.

[Antolatzaileek ez dute beren gain hartuko programako gonbidatuen esanen
gaineko erantzukizunik].



ARGAZKI ERAKUSKETA__

ABUZTUAREN 19TIK IRAILAREN 14RA ARTE

E

**Gasteiz hiribidea. 85.
Europa biltzar-
jauregiaren ondoan**

EXODOAK

Egunero-egunero, milaka pertsonak etxea uzten dute atzean. Ez hala aukeratu dutelako, premia gorriak bultzatuta baizik. Gerratik, gosetik eta indarkeriatik ihesi. Ahal duten apurra bildu, eta seme-alabak besoetan hartuta, hara-hona dabiltza, bihotzean leku seguru bat aurkitzeko itxaropena akuilu. Kriminalizatuak, izua eta gorrotoa pizteko asmoz erabiliak... Egoera horretara makurtu dituzte, guk guztiok egingo genukeen bezala beren buruentzako zein senideentzako etorkizun



hobea bilatze hutsagatik. Erresistentzia eta duintasunez beteriko bidaia da, baina milaka pertsona hiltzen da bidean.

Komunikabide nagusienetan oso noizean behin agertzen diren migrazio-bideak aurkeztuko dizkigu erakusketa honek: Europako herrialdeen artean (Serbia-Hungaria, Irun eta Mantxako kanala, esaterako); baita urrunagoak ere, Kolonbia eta Panama arteko Darién eskualdea, adibidez, oihan-eremu zingiratsua, urtero ehunka mila pertsonak zeharkatzen dutena Estatu Batuetara bidean. Horrez gain, behin batean Kontinente Zaharrerantz bidean Senegaldik abiatu eta desagertu direnen senideen erretratuak biltzen ditu erakusketak.

Sergi Cámara

Prensa-argazkilari independentea da, estatuko zein nazioarteko hainbat hedabidetan argitaratzen du bere lana. Migrazio eta errefuxiatuen gorabeherei segika osatu du bere lan-ibilbidea. Somaliatik Yemenera ontziz joandakoen bidea jaso du argazkitan, baita Saharako basamortuko migrazio-bidea ere, eta Egipton dauden errefuxiatu eta migratzaileen organoen trafikoa. Hamar urtez, Melillako hesi inguruan jazotako giza eskubideen urraketak dokumentatu ditu; lan hori *Negro* liburuan (Blume, 2020) jaso izan du. Horrez gain, urtez urte errefuxiatuek Europan zehar eta Ameriketako Estatu Batuetara bidean jarraitu dituzten ibilbideak ezagutu ditu.

Telecinco kateak ematen duen José Couso saria irabazi zuen 2005ean, Melillako hesian egindako lanagatik, eta Joan Gomis Kazetaritza Solidarioko Saria, 2019, bere ibilbide profesionala aintzat hartuta. Cámararen lana Harvardeko Unibertsitateko erakusketa kolektibo baten parte izan da.

Cámararen aburuz, bere lanbidean gehiago balio du bota pare on batek, argazki-kamera on batek baino.

Gasteiz hiribidea, 85
Europa biltzar-jauregiaren ondoan

12:00

ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

EXODOAK

VISITA GUIADA A LA EXPOSICIÓN

Sergi Cámararen eskutik.

18:00

ERAKUSKETAREN BISITA GIDATUA

(Euskaraz)

Ura Iturralde

argazkilaria dokumentalaren eskutik

25
abuztua

19:00 | Europa biltzar-jauregia

HITZALDIA

EUROPA FORTALEZA, UN VIAJE POR LAS VULNERACIONES DE DERECHOS HUMANOS EN EUROPA

("Europa gotorleku: bidaia bat europako giza eskubideen urraketetan barrena", gaztelaniaz)

Europa gotortzen ari gara, nahiz eta urtero ospatzen dugun Berlingo Harresia erori zen unea. Horixe erakusten digu Europako hamar ibilbidetan eta kontinenteko mugetan barrena egindako lan honek.

Hizlaria: **Sergi Cámara**, prentsa-argazkilari independentea, duela bi hamarkada baino gehiagotik migrazioen eta erre-fuxiatuen alorrean espezializatua. Gaur egun, *Europa Fortaleza* ("Europa Gotorleku") proiektua jorratzen ari da.

21:30 | Florida zinema-aretoak

ZINEFORUMA

YO CAPITÁN


(Matteo Garrone, 2023). Italia, Belgika, Frantzia. 122 min.

Senegaleko bi gaztek Dakar uztea erabaki dute, eta Europaranzko migrazio-bideari ekin diote. Zuzendari italiar Matteo Garronek (*Gomorra*, *Dogman*) odisea garaikidea osatu du film honetan:

protagonistek basamortuko arriskuak, Libiako atxiloteta-guneetako izugarriak eta Kontinente Zaharreranzko itsas-zeharkaldia gainditu beharko dituzte.

Hizlaria: **Mbaye Gil** (Dakar, Senegal), erizain asistentziala, 2018az geroztik Osakidetzan dihardu, eta Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoko graduako (EHU) ikaslea da. Sunu Gaal GKEko burua da; horren bitartez, Jaxaay herriko (Dakarreko aldiriak) osasun-zentroak hobetzeko proiektuak bultzatzen ditu.

Prezioa: 3 €



12:00 | Europa biltzar-jauregia

HITZALDIA_

VIDAS OCUPADAS ("Bizitza okupatuak", gaztelaniaz)

Bonbardaketak, kontrol militarrek nonahi, lur konfiskatuak, indarkeria egunero, mehatxuak, izua... Nola bizi dute egunero gatazka palestinarrek eta israeldarrek? Modu bakarra da gatazka luze bezain konplexu horretan sakontzeko: aurpegiak izenekin janztea, eta -harrituko, hunkituko eta zenbait egi kolokan jarriko dizkiguten bizi-istorio hauen bidez- errealitate hori ulertzen saiatzea.

Hizlaria: **Beatriz Lecumberri**, kazetaria, nazioarteko informazioan espezializatua. Berri-emaile lanetan aritu izan da Jerusalemen, Caracasen, Rio de Janeiron eta Parisen, eta France-Presse agentzian (AFP) lan egin du. *Palestina, la tierra estrecha* eta *La revolución sentimental* liburuen egilea da. Ana Albarekin batera, *Condenadas en Gaza* ("Gazan kondenatuta") dokumentala zuzendu zuen 2020an. Gaur egun, *El País* egunkariko "Planeta Futuro" atalean egiten du lan.

26
abuztua

19:00 | Europa biltzar-jauregia

HITZALDIA_

PAZ EN UCRANIA, GAZA E IRÁN: RETOS PARA UN ORDEN INTERNACIONAL EN RIESGO DE COLAPSO

("Bakea ukrainan, gazan eta iranen: erronka bizia, kolapso-arriskuan dagoen nazioarteko ordena baterako erronkak", gaztelaniaz)

Giza tragedia oso larriak izateaz gain, Ukrainako, Gazako eta Irango gatazkek eskualde mailan nekez kontrola daitezkeen gorakada militarrek eragin ditzakete. Horrez gain, nazioarteko ordena gero eta gehiago kolokan dagoela erakusten dute ageri-agerian. Gatazka horiek piztu dituzten zioak aztertuko ditugu, horietako bakoitzean inplikaturako eragile nagusien estrategiak, eta aurrera begirako perspektibak.

Hizlaria: Jesús A. Núñez Villaverde, Gatazkei eta Ekintza Humanitarioari buruzko Azterlanen Institutuko (IECAH) zuzendarikidea. Aitua da zenbait alorretan: nazioarteko harremanak, nazioarteko segurtasuna, bakearen eraikuntza, indarkeriazko gatazken prebentzioa, eta mundu arabiar-musulmana. Ekonomialaria eta militar erretiratua da. Nazioarteko Harremanetako irakasle izan da Comillasko Eliz Unibertsitatean, bai eta International Institute for Strategic Studies-eko kide ere.

21:30 | Florida zinema-aretoak

ZINEFORUMA_

NO OTHER LAND

(Basel Adra, Hamdan Ballal, Yuval Abraham, Rachel Szor, 2024). Palestina, Norvegia. 92 min. J.BGA.

Bideokamera beti alboan, Zisjordanian bizi den Basel Adra palestinarra dokumentatzen ari da Israelgo armadaren ahalegina, bere auzoko etxeak birrindu eta bertako biztanleak kanporatzeko, bertan militarrentzako tiro-gune bat egiteko asmoz. Baselek kazetari israeldar baten (Yuval) laguntza jasoko du. 2024ko dokumental onenaren Oscarra irabazi du gaurkotasun ezin handiagoko film honek, beste sari batzuen artean.



Hizlaria: Jesús A. Núñez Villaverde, Gatazkei eta Ekintza Humanitarioari buruzko Azterlanen Institutuko (IECAH) zuzendarikidea.

Prezioa: 3 €

12:00 | Europa biltzar-jauregia

HITZALDIA_

LA INDIA, HOY: VISIÓN NACIONAL Y AMBICIÓN GLOBAL ("India, gaur egun: ikuspegi nazionala eta anbizio globala", gaztelaniaz)

Narendra Modi-ren gidaritzapean, barne-eraldaketak bizi ditu gaurko Indiak, nazioarteko proiektio bila ari den honetan. Eskualde Indo-Pazifikoan Indiak duen presentzia hazkorra jorratuko dugu, baita potentzia handiekin dituen harremanen berrantolaketa, eta Pakistanekiko gatazka amaiezina, berebiziko arreta eginez Kaxmir eskualdeari. Azter dezagun zertan den gaur egun barne-soa eta anbizio globala uztartzen dituen nazio hau.

Hizlaria: Eva Borreguero, Zientzia Politikoko irakaslea Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean (UCM), Hegoaldeko Asian espezializatua. Fulbright Scholar ikerlaria izan da Georgetown-eko Unibertsitatean. Hezkuntza Programen zuzendaria zan da Casa Asia erakundean. *Hindú. Nacionalismo religioso y política en la India contemporánea* eta *India: Historia de una civilización* liburuak idatzi ditu. *El País* egunkariko kolaboratzailea da, iritzi-artikuluen bidez.



27
abuztua

19:00 | Europa biltzar-jauregia

MAHAI-INGURUA

EL (DES)ORDEN MUNDIAL

(“Mundu (des)ordena”, gaztelaniaz)

Mundu-antolamenduaren gorabeherak aztertuko ditugu nazioarteko politikaren alorreko lau adituren eskutik.

Hizlariak:

Eva Borreguero, Zientzia Politikoko irakaslea Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean (UCM), Hegoaldeko Asian espezializatua.

Beatriz Lecumberri, berri-emaile aritua Jerusalem, Caracas, Rio de Janeiro eta Parisen.

Pablo Rodríguez Suanzes, *El Mundo* egunkariko kazetaria, berri-emaile ari da gaur egun Washingtonen, eta lehenago Bruselatik.

Moderatzailea: Pablo Morán, SER kateko nazioarteko ataleko burua eta gai sozialak, giza eskubideak eta nazioarteko lankidetzaz jorratzen dituen *Punto de fuga* irratsaioaren zuzendaria.

21:30 | Florida zinema-aretoak

FILMA

ESCRIBIENDO CON FUEGO

(Rintu Thomas, Sushmit Ghosh, 2021). India. 94 min. JBGA.

Sari ugari jaso ditu emakume ukiezinek soilik osatutako Indiako lehen komunikabideari buruzko dokumentala honek.



Gizonak nagusi diren esparru batean, Meera prentsa-buruak eta berarekin diharduten berri-emaileek tradizioak hautsiko dituzte, eta ustelkeria politikoaren, mafien eta egungo India kutsatzen duen matxismoaren aurka lehiatuko dira. Prentsa-askatasunaren eta feminismoaren aldeko aldarri ausarta da.

Prezioa: 3 €

12:00 | Europa biltzar-jauregia

HITZALDIA

EUROPAR BATASUNAREN NORTASUN KRISIA

("La crisis de identidad de la Unión Europea".

Hitzaldi hau **euskaraz** izango da)

Bakearen Nobel sariduna bere burua armatzen, Parisko Itunaren lemazaina lege berdeak zapuzten, aniztasunean batuta omen zena migratzaileen beldur. Europar Batasunak ezinezko zubi lana egin nahi du, amestu zuen munduaren eta eskuin muturrak eta Trumpek erakutsi diotenaren artean.

Hizlaria: Amaia Portugal González Euskadi Irratiko eta Radio Euskadiko berri-emalea da (2020-2025) Europar Batasunaren eta NATOren alorrean. 2015ean hasi zen EITB taldean, lehenik Radio Vitoriako albistegi-erredaktore gisa, eta gero Euskadi Irratiko goizeko saioetan. Lehenago, hainbat komunikabide eta bitartekotan aritua da: *Irutxuloko Hitza*, Elhuyar Fundazioa, *Berria*, *Zientzia Kaiera* (EHU) eta Gaindegia.



28
abuztua

19:00 | Europa biltzar-jauregia

HITZALDIA

DONALD TRUMP Y LA MUERTE DEL SIGLO XX

(“Donald Trump eta XX. mendearen heriotza”, gaztelaniaz)

Trump berriro ere AEBetako presidente bihurtze hutsak sakon-sakonetik astindu ditu bertako barne- zein kanpo-politika. Deportazioak, lan-kaleratze masiboak, unibertsitateen aurkako oldarraldia, muga-zergak, Ukrainako eta Gazako gatazketako bitartekaritza, Iranen aurkako erasoa... multilateralismoa eta demokrazia liberalaren eredua, orain arte ezagutzen dugun bezala, ahultzen duten praktika disruptiboak dira horiek guztiak. Eta, hala eta guztiz ere, eraldaketa kanpotik dirudiena baino sakonagoa da.

Hizlaria: **Pablo Rodríguez Suanzes**, *El Mundo* egunkariko berri-emailea Whashingtonetik, lehenago, hamar urtez, Bruselatik Europar Batasuna, NATO eta Beneluxi buruz aritu ondoren. Ohiko kolaboratzailea da Onda Cero katean, *Letras Libres* eta *5W* aldizkarietan; azken horretan *Europa soy yo* liburua argitaratu du, Anna Bosch kazetariarekin batera. 2020an, Salvador de Madariaga saria lortu zuen, prentsa idatziaren kategorian.

21:30 | Florida zinema-aretoak

ZINEFORUMA

CAPITOLIO VS. CAPITOLIO

(Javier Horcajada, 2025). Espainia. 63 min. JBGA.

Capitolio vs. Capitolio dokumentalak bi irudi-mota kontrastatzen ditu: batetik, AEBetako Kapitolioko erasotzaileek 2021ean grabatutako bideoak; bestetik, demokrazia estatubatuarraren printzipio eta balioei buruzko XX. mendeko artxiboko aleak. Emaiza dokumentu harrigarri eta probokatzaile bat da, bai formalki, baita edukiari dagokionez ere, aurrez aurre ditugun orainaldi eta etorkizun kezkarrien erradiografia.

Hizlaria: **Rogelio Núñez Castellano** Elkano Errege Institutuko ikertzaile senior ez-egoiliarra da.

Prezioa: 3 €



12:00 | Europa biltzar-jauregia

HITZALDIA_

**AMÉRICA LATINA. ENTRE EL RETO DE TRUMP
Y LA TENTACIÓN DE CHINA**

("Latinoamerika kinka larrian, Trumpen eta Txinarekiko tentazioaren artean", gaztelaniaz)

Latinoamerika krisi hirukoitz baten aurrean dago gaur egun: demokratikoa, ekonomikoa eta soziala. Trump Etxe Zurira iritsi denetik, sendotu egin da haren aldeko mugimendua, eta areagotu ziurgabetasun ekonomikoa; aldi berean, kinka geopolitiko estu batean jarri du Latinoamerika: Estatu Batuetako agintariaren baldintzak onartu, Txinara hurbildu, edo aliatu berriak bilatu, esterako EB eta India.

Hizlaria: Rogelio Núñez Castellano, Elkano Errege Institutuko ikertzaile senior ez-egoiliarra. Irakaslea da Hespérides Unibertsitatean, Guatemalako Francisco Marroquín Unibertsitatean, eta Camilo José Cela Unibertsitateko Latinoamerikako Ikasketen Institutuko Komunikazio eta Marketin Politikoko Masterrean (Aholkularitza eta Kanpainen Kudeaketa alorrean). Horrez gain, CEAPIko (Iberoamerikaren Aldeko Enpresarien Kontseilua) aholkularia da.



29
abuztua

19:00 | Europa biltzar-jauregia

HITZALDIA

LAS NUEVAS LIDERESAS Y LÍDERES DE ÁFRICA. EXPECTATIVAS Y REALIDADES ("Afrikako lider berriak, gizon eta emakumeak. Itxaropenak eta errealitateak", gaztelaniaz) Azken urteotan, Afrikan egiturazko aldaketak izan dira lidergo-ereduari dagokionez. Gazteak aldaketa-gose dira, demokratizaziorako akuilu bihurtu dira, eta beren etorkizunaren agintea hartzen ari dira. Zenbait kasu aztertuko ditugu: Senegal, Burkina Faso, Niger, Ginea Conakry, Mozambique eta Namibiakoak.

Hizlaria: Hilária Vianeke (Angola) gizarte-langilea da, Administrazio eta Politika Publikoko doktorea (EHU), eta giza eskubideen aldeko aktibista. Afrikako errealitate soziopolitikoari buruzko artikuluak argitaratzen ditu Noticias Taldeko egunkarietan. Lehenago, esatari aritu zen Angolako Irrati Nazionalean (2000-2006), eta analista Radio Euskadiren *La Galería* irratsaioan, "Mujeres del Sur Global" espazioaren barruan.

21:30 | Florida zinema-aretoak

FILMA

SIN SEÑAS PARTICULARES

(Fernanda Valadez, 2020). Mexiko, Espainia. 100 min.

Magdalena semearen bila dabil Mexikon barrena. Ez daki berari buruz ezer, duela zenbait hilabete AEBetara migratzeko asmoz herritik alde egin zuenetik. Kontakizun bizi-bizia, interpretazio sendoak eta estilo zinematografiko bikaina oinarri, Fernanda Valadezen lehen lanak zur eta lur utzi ditu ikusleak hainbat jaialditan, Sundance, Donostia, Salonika, Morelia eta Zurichen, besteak beste. Goi mailako zinemaz ari gara.



Prezioa: 3 €

